

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) isuri gutxiko eremuaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 21eko Zuzentarauak, giroko airearen kalitateari eta Europan atmosfera garbiagoa izateari buruzkoak, ez du eskatzen isuri gutxiko eremuak sortzea. Beraz, IGEak ez dira Europako eskakizun bat. Espainiako 50.000 biztanletik gorako hiriek, kutsadura-arazo bat izan ala ez, IGEak sortu behar izan badituzte, Pedro Sánchezen eta haren bazkideen (besteak beste, Podemos/Sumar, EAJ eta EH Bildu) gobernuaren konbikzio ideologikoagatik da.

Donostiak ez du airearen kutsadura-arazorik, nahiz eta asko horretan tematu, eta Eusko Jaurlaritzak berak argitaratzen dituen datuek frogatzen dute hori.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak Gobernu Taldeari eskatzen dio IGEaren perimetroa Parte Zaharrera mugatzeko.

2. Donostiako Udaltzazak Gobernu Taldeari eskatzen dio hirian mugikortasun jasangarriagoa sortzeko behar diren neurriak abian jartzeko: besteak beste, bidegorrien sarea hobetzea eta handitzea, edo disuasio-aparkalekuak sortzea, garraio publikoko ahalik eta alternatiba gehienekin konektatuta.

Donostia, 2025eko apirilaren 24a.

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularreko Udaltaldeko bozeramailea